




Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala **2020**

Enplegua

2022ko otsailaren 7an



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



Enplegu-politika gizartearen politika nagusietako bat da. Ordainsarien dimentsioaz gain, funtsezko gizarteratze-tresna da enplegua. Kalitate nahikokoa bada, pertsonen potentziala, sormena, berrikuntza eta irudimena askatzeko bidea da lana, eta segurtasuna zein gizartean parte hartzeko bide bat lortzeko aukera ematen die pertsoneri.

Enpleguaren balio handiaren jakitun, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa abiarazi zuen Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak, helburu estrategiko hauekin: langabezia-tasa %10etik behera jaitea 2020ko azken hiruhilekoan, 20.000 gazteri lan-aukera ematea 2017-2020 aldian, 58.000 enplegu sustatzea aldi horretan, enpresa berriak sortuz, eta kontrataziorako pizgarriak abian jartzea enplegu-aukera gutxien dituzten pertsonentzat, eta birgaikuntza publikoki sustatzea, enplegua sortzeko sektore intentsibo gisa.

2020an, ezin dugu ahaztu COVID-19aren pandemiak sortutako osasun-larrialdiak eragina izan duela enpleguan, helburu horiek betetzeko orduan, eta datozen urteetan are eragin handiagoa duela.

Ondorengo tauletan 2020ko datuak eta 2017-2020 aldiko datu metatuak ageri dira.

AURRE- IKUSITAKO INPAKTUEN EMAITZAK 2017-2020	IINPAKTUAREN ADIERAZLEAK	AURRE- IKUSITAKO INPAKTUA 2017-2020	EMAI- TZA 2017	EMAI- TZA 2018	EMAI- TZA 2019	EMAI- TZA 2020	GAUZA- TUTAKO EMAITZA METATUA 2017-20	BETETZE MAILA 2017-20
58.000 susta- tutako enpleguak (*)	Enpresa berriak sortzeak sortutako enplegu- kopurua	12.000	3.713	3.904	3.936	3.262	14.815	% 123
	Etxebizitza eta ekipamendu publikoak birgaitzeko laguntza publikoari lotutako enplegu- kopurua	15.000	3.214	3.754	6.251	4.465	17.684	% 118
	Kontrataziorako pizgarrien bidez sortutako enplegu- kopurua	18.000	4.651	6.324	7.106	8.679	26.760	% 149
	Lan-eskaintza publikoetan sartutako plazen kopurua (txanda irekia)	13.000	4.221	4.362	6.482	2.538	17.603	% 135
	Sustatutako enpleguak, guztira	58.000 (*)	15.799	18.344	23.775	18.944	76.862	% 133

AURREI-KUSITAKO INPAKTUEN EMAITZAK 2017-2020	IINPAKTUAREN ADIERAZLEAK	AURREI-KUSITAKO INPAKTUA 2017-2020	EMAI-TZA 2017	EMAI-TZA 2018	EMAI-TZA 2019	EMAI-TZA 2020	GAUZATUTAKO EMAITZA METATUA 2017-20	BETETZE MAILA 2017-20
6.000 laguntza jaso duten enpresa berriak	Mikroenpresa berrien eta autonomoen kopurua	5.000	1.278	1.658	1.797	1.432	6.165	% 123
	Enpresa berritzaile berrien kopurua	1.000	279	312	289	304	1.184	% 118
	Laguntza jaso duten enpresa berriak, guztira	6.000	1.557	1.970	2.086	1.736	7.349	% 122

(*) Hasiera batean, 45.000 lanpostu sustatzea aurreikusi zen. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 lanpostu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan aurreikusitako lan-eskaintza publikoetan sartutako lanpostuei dagozkienak.

GAZTEEN ENPLEGUAN AURREIKUSITAKO INPAK. 2017-2020	INPAKTUAREN ADIERAZLEAK	AURREIKUSITAKO INPAKT. 2017-2020	EMAITZA 2017	EMAITZA 2018	EMAITZA 2019	EMAITZA 2020	ZENBATETSITAKO EMAITZA METATUAK 2017-20	ZENBATETSITAKO BETETZE-MAILA 2017-20
20.000 lan-aukera bat izan duten gazteak	Lehen Aukera programaren bidez kontratatutako gazteen kopurua	3.000	498	309	616	308	1.731	% 58
	Hezkuntza- eta lan-trantsizioko programan parte hartu duten gazteen kopurua	5.000	2.166	4.938	3.576	3.101	13.781	% 276
	Ekintzaile berrien eta ekintzaile gazteen kopurua	3.500	847	1.050	1.515	1.444	4.856	% 139
	NTokiko eta eskualdeko enplegu-planetan kontratatutako gazteen kopurua	2.500	834	1.088	1.033	1.591	4.546	% 182
	Lan Eskaintza Publikoetan sartutako gazteentzako plaza-kopurua	3.200	1.868	2.045	3.133	1.435	8.481	% 265

GAZTEEN ENPLEGUAN AURREIKUSITAKO INPAK. 2017-2020	INPAKTUAREN ADIERAZLEAK	AURREIKUSITAKO INPAKT. 2017-2020	EMAITZA 2017	EMAITZA 2018	EMAITZA 2019	EMAITZA 2020	ZENBATETSITAKO EMAITZA METATUAK 2017-20	ZENBATETSITAKO BETETZE-MAILA 2017-20
20.000 lan-aukera bat izan duten gazteak	Txanda-kontratuen onuradun izango diren gazteen kopurua	400	31	47	65	64	207	% 52
	Gazteak itzultzeko programan parte hartu duten gazteen kopurua	200	Hasiera 2018	6	12	10	28	% 14
	Prestakuntza-eta enplegu-beketan parte hartu duten gazteen kopurua	1.800	612	743	710	149	2.214	% 123
	Sektore espezifikoetako laguntza-programen onuradun diren gazteen kopurua	400	Hasiera 2018	33	33	0	66	% 17
	Lan-aukera duten gazteak, guztira	20.000	6.856	10.259	10.693	8.102	35.910	% 180

2021ERAKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK

Bizimoduak edo herentzia genetikoak bezalako banakako faktoreen gainetik, euren bizi eta lan baldintzei eragiten dieten beste determinatzaile sozial eta ekonomiko batzuek eragiten dute pertsonen osasunean, eta gaixotasunekiko zaurgarritasuna areagotzen dute.

Enplegurako Plan Estrategikoa ez ezik, Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021 ere badu Enplegu Zuzendaritzak, sozialki ahulagoak diren taldeen osasun kaskarragoa eragiten duten zirkunstantzia, aukera eta baliabideen banaketa desberdinari modu integralean, dimentsio askotatik eta hainbat erakundetatik aurre egiteko.

IV. Gizarteratze Planaren esparruan, jarraipena emango zaio 2020an toki-eremuko koordinazio-mahaien inguruan (Otxarkoaga, Durango, Eibar eta Lasarte) hasitako proiektuari. 2021ean, Amurrioko eta Portugaleteko udalerrietara zabalduko da formula hori, enplegu, osasun, hezkuntza, etxebizitza eta gizarterbitzuetako zerbitzu publikoen jarduerak koordinatzea ahalbidetuko duten helburu berberekin; izan ere, gizarteratzea ezin da ikuspegi materialetik soilik ulertu, lan-merkatuan aktibatze huts gisa, ondasunak eta zerbitzuak sortzeko eta kontsumitzeko, pertsonaren beste dimentsio asko hartzen baititu barne. Dimentsio anitzeko errealitate pertsonal horrek sektoreen arteko esku-hartzea eskatzen du, eragileen eta erakundeen aldetik koordinatuta.

Bestalde, lan-merkatuan sartzeko prozesuei buruzko ezagutza eskuragarria hobetzeko eta laneratze-langileen kualifikazioa eta egiaztapen profesionala hobetzeko, lankidetzan jardungo da Gizatea elkartearekin.

Zahartzea, gizarte aurreratu baten zeinua, kalitatezko enplegu profesionalerako aukera bat da. Hori dela eta, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak ZainLab proiektua jarri du abian. Proiektu horren helburua da datozen urteetan adinekoak zaintzeko arloan garatuko diren enplegu-aukera erraldoiak identifikatzea, aurreikustea eta sustatzea, lankidetzan eta koordinazioan oinarrituta. Horretarako, beharrezko lanbide-profilak prestatu nahi ditu, enplegu hori kalitatezkoa izan dadin, bai eta sektoreko erronka berriei aurre egiteko enpresa-ekimenak sustatu ere.

Emakumeak jarduera ekonomikoan baldintza berdinetan sartzen laguntzeko eta ekintzailtza modu integralean errazteko, gure gizartearentzat duen garrantzi estrategikoari balioa emanez, diru-laguntzen deialdia egingo da, emakumeen

ekintzailletza sustatzeko eta enpresa zein erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumeen talentua txertatzeko.

Enplegua hobetzeko eta berritzeko ebaluazioa eta azterketa da zuzendaritzaren beste alderdi bat. Ildo horretan, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak proiektu bat jarriko du abian, Lanbiderekin lankidetzan, lurraldean Lanbideren bulegoen esku-hartze eredu bat diseinatzeko, ikerketa-, ekintza- eta partaidetza-metodologiaren bidez. Era berean, lan-aktibazioko zenbait politika ebaluatuko dira, programen eraginkortasuna hobetzeko.

2021ean, Enpleguaren Euskal Estrategia 2030 jarriko da abian, hamarkada horretarako ibilbide-orria. 2021-2024 Enplegu Plan Estrategiko berriaren xedea izango da EEE 2030ean definitutako gako estrategikoak zehaztea, eta, horrekin batera, Eusko Jaurlaritzako sailtan enplegua sustatzeko zerbitzuak eta programak koordinatzeko tresna izan nahi du.

Legegintza-programaren barruan, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Lege berria bultzatuko da 2021ean, eta Euskal Enplegu Sistemaren lege berriaren atariko lanak hasiko dira.

Eragile publiko eta pribatuen artean gogoeta egiteko eta esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko, ENPLEGUAREN IV. KONGRESUA antolatuko dugu azaroaren 15ean eta 16an, esparru orokor honetan: “Enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa kontratu sozial berri baterako”.